

Gaitasun mailak: esanahia eta puntuazio-tarteak

Ikasleek zuzen erantzundako galderak aztertuz, jakin daiteke zer dakiten egiten eta zer ez dakiten ongi egiten. Gure ustez, **1. eta 2. mailetan dauden ikasleek ez dute gaitasuna eskuratu**, eta **3. edo 3+ mailakoek**, berriz, **espero den gaitasun-maila eskuratu dute**. Oro har, maila bakoitzari lotutako gaitasunak honako hauek dira:

Gaztelaniazko hizkuntza gaitasuna: (gehieneko puntuazioa: 45)

1. maila [0, 21)	2. maila [21, 27)	3. maila [27, 39)	3+. maila [39, 45]
<p>Maila honetako ikasleak espero baino hizkuntza-gaitasun askoz txikiagoa erakusten du.</p> <p>Badu gaitasuna informazio guztiz literala eta lokalizatua ulertzeko. Arazoak daude, batez ere testu etenekin.</p> <p>Interpretatzeko erraz-errazak diren zereginei erantzuten ahal die betiere testuaren ulermen orokorra eskatzen ez bada edo inferentzia konplexuak egin behar ez badira.</p> <p>Ez da gai testuaren edukiaz edo formaz hausnartzeko, haren kanpoko ezagutzak ez dira nahikoak eta ez ditu irakurtzen duenarekin erlazionatzen.</p> <p>Haren adierazpen idatzian koherentzia-eta kohesio-arazoak daude, eta gramatika-akatsak egiten ditu (komunztadura-arazoak, preposizioen erabilera...).</p> <p>Ortografia-akats larriak egon ohi dira.</p>	<p>Maila honetako ikasleak espero baino hizkuntza-gaitasun txikiagoa erakusten du.</p> <p>Informazio literala eta lokalizatua aurkitzen ahal du, baita testu etenetan ere.</p> <p>Interpretatzeko erraz-errazak diren zereginei erantzuten ahal die baina ez da gai inferentzia konplexuak egiteko.</p> <p>Testuaren esanahia uler dezake, baina zailtasunak ditu testua bere osotasunean ulertzeko.</p> <p>Testuaren edukiari edo formari buruz hausnartzeko zailtasunak ditu; batzuetan, ez du erlazionatzen irakurtzen duena eta ezagutzen duena, eta hori traba da testua ulertzeko.</p> <p>Ekoizpen idatzian, 5 ortografia akats baino gehiago daude hamar lerroko.</p> <p>Testuaren barne-kohesioko akatsak izaten dira, eta perpausak oso egitura oinarrizkoa dute.</p>	<p>Maila honetako ikasleak gaitasuna eskuratu du. Oso ongi moldatzen da informazioa bilatzen, bai literala, bai hitzez hitzekoa ez dena edo sakabanatua dagoena. Testu etenen informazioaren banaketa ulertzen du.</p> <p>Testua bere osotasunean ulertzen du. Interpretazio-maila onargarria erakusten du, bai eta inferentziak sortzeko gaitasuna ere.</p> <p>Gai da testua baloratzeko eta haren gainean hausnartzeko, eta testuko datuak baliatzen ditu edukia aplikatzeko beharrezkoa den informazio esanguratsua ateratzeko.</p> <p>Ekoizpen idatzian 5 ortografia akats baino gutxiago daude.</p> <p>Perpausak batzuk besteekin ongi josiak daude.</p> <p>Maila honetan jada ez dago komunztadura akatsik. Argi bereizten dira ahozko kodea eta kode idatzia.</p>	<p>Maila honetako ikasleak oso ongi eskuratu du gaitasuna. Informazioa aurkitzeko gai da, modu esplizituan adierazita ez egon arren edo sakabanaturik egon arren, testu mota zeinahi dela ere.</p> <p>Ahalmen handia erakusten du testua osotasunean ulertzeko, interpretatzeko, eta ahalmen handia du, orobat, inferentziak egiteko.</p> <p>Gai da testua baloratzeko eta haren gainean hausnartzeko, eta testuko datuak baliatzen ditu edukia aplikatzeko beharrezkoa den informazio esanguratsua ateratzeko.</p> <p>Haren ekoizpen idatzian oso ortografia akats gutxi dago eta azentu-markak zuzen erabiltzen ditu.</p> <p>Testuak argiak dira, ongi antolaturik daude eta zentzu guztietan irakurgarriak dira.</p> <p>Maila hau aurrekotik bereizten da barne-kohesioko baliabideen erabileran, erabilitako perpausen konplexutasun eta aberastasun sintaktikoan, alegia.</p>

Matematika gaitasuna: (gehieneko puntuazioa: 26)

1. maila [0, 6]	2. maila [6, 10]	3. maila [10, 21]	3+ maila [21, 26]
<p>Maila honetako ikasleak matematika-gaitasun txikia du. Oso galdera gutxiri erantzuten dio zuzen.</p> <p>Gai da aurreko zikloari dagozkion oinarrizko kalkuluak egiteko.</p> <p>Ez du egoera ulertzen eta ez ditu egoki ateratzen behar dituen datuak. Ez da gai bi urrats eskatzen dituzten problemak ebazteko, ez eta arrazoiketa matematikoa eskatzen dutenak ebazteko ere.</p> <p>Ez ditu ulertzen proportzionaltasuna adierazten duten egoerak. Ez ditu zatikizko zenbakiak erabiltzen.</p> <p>Arazoak ditu denbora kalkulatzeko eta txanponen balioa kalkulatzeko. Ez ditu irudi geometrikoak identifikatzen egiazko bizitzan.</p> <p>Ez da gai grafiko edo taula bat ulertzeko. Simetria identifikatzeko arazoak izan ditzake.</p>	<p>Maila honetako ikasleak espero baino gaitasun txikiagoa erakusten du. Galdera errazenei erantzuten diete.</p> <p>Gai da 1. zikloari dagozkion oinarrizko kalkuluak egiteko.</p> <p>Ez du egoera ulertzen eta ez ditu egoki ateratzen behar dituen datuak. Ez da gai bi urrats eskatzen dituzten problemak ebazteko, ez eta arrazoiketa matematikoa eskatzen dutenak ebazteko ere.</p> <p>Ez ditu ulertzen proportzionaltasuna adierazten duten egoerak. Ez ditu zatikizko zenbakiak erabiltzen.</p> <p>Zailtasunak ditu denbora kalkulatzeko eta txanponen balioa kalkulatzeko. Ez ditu beti identifikatzen irudi geometrikoak egiazko bizitzan.</p> <p>Grafiko bat egiten ahal du euskarri eta adibideekin, eta oso taula errazak interpretatu ere bai. Planoko simetria ulertzen du.</p>	<p>Maila honetako ikasleak badu ikasturte honetan espero zen gaitasuna. Ongi daki oinarrizko kalkuluak egiten, eta, gainera, zenbait ezagutza aplikatzeko gai da egiazko testuinguruei dagozkien egoerak ebazteko.</p> <p>Zenbakizko informazio gutxi izan arren, ulertzen ditu arrazoiketa logiko-matematikoa erabiltzea eskatzen duten egoerak. Gisa berean, zuzen ebazten ditu bi urrats egitea eskatzen duten problemak.</p> <p>Proportzionaltasuna adierazten duten egoerak ulertzen ditu eta zatikizko zenbakiak erabiltzen ditu; badaki denbora-kalkulu errealak egiten arrunt ohikoak diren egoeretatik abiatuz; gai da irudi geometrikoak egiazko bizitzan identifikatzeko; txanponen balioa ezagutzen du eta ongi moldatzen da txanponekin.</p> <p>Zuzen interpretatu eta adierazten du grafikoetan adierazitako informazioa.</p> <p>Espazioan moldatzen da eta badaki simetria ezagutzen.</p>	<p>Gaitasuna oso ongi eskuratu duela erakusten du. Ongi daki oinarrizko kalkuluak egiten, eta, gainera, zenbait ezagutza aplikatzeko gai da egiazko testuinguruei dagozkien egoerak ebazteko.</p> <p>Egoera ulertzen du, behar duen informazioa ateratzen du, gai da matematika-planteamenduari ekiteko eta badaki arrazoiketa matematikoa alde zuzeneko baldintzetara egokitzen. Gutxienez bi urrats egitea eskatzen duten problemak ebazten ditu.</p> <p>Proportzionaltasuna adierazten duten egoerak ulertzen ditu eta zatikizko zenbakiak erabiltzen ditu; denbora-kalkulu errealak egiten daki. Gai da irudi geometrikoak identifikatzeko egiazko bizitzan. Txanponen balioa ezagutzen du eta ongi moldatzen da txanponekin.</p> <p>Zuzen interpretatu eta adierazten du grafikoetan adierazitako informazioa.</p> <p>Espazioan moldatzen da eta badaki simetria ezagutzen.</p>

Ingeleseko hizkuntza gaitasuna: (gehieneko puntuazioa: 42)

1. maila [0, 18)	2. maila [18, 25)	3. maila [25, 38)	3+. maila [38, 42]
<p>Maila honetako ikaslea gai da informazioa ulertzeko baldin eta literala, esplizitua eta erraz lokalizatzeko modukoa bada. Hala ere, zailtasunak ditu interpretazio-maila jakin bat eskatzen duten galderei erantzuteko. Testu etenak arazotsuak izan daitezke.</p> <p>Ez ditu ulertzen zikloan landutako hitz oso oinarrizkoak.</p> <p>Gai da soil-soilik pertsonaia baten edo fotograma baten deskribapen oso labur eta oinarrizkoa idazteko: gramatikako hutsegite anitz egiten ditu, idazten duena ulertzeko oztopo direnak.</p> <p>Gainera, zailtasun handiak ditu audio mezuak ulertzeko.</p>	<p>Maila honetako ikasleak zuzen erantzuten die hitzez hitzeko informazioa ulertzea eskatzen duten galderei, baita ulermen maila handiagoa eskatzen duten testuak edo testu etenak direnean ere.</p> <p>Maila honetako lexikoa 1. mailakoa baino zabalagoa da. Nolanahi ere, zailtasunak ditu testuetan bildutako informazioa interpretatzerakoan. Ez da gai inferentzia konplexuak egiteko.</p> <p>Idaztean, zailtasunak ditu pertsonaia bat edo fotograma bat deskribatzeko, eta idazten duena ulertzea galarazten ahal duten hutsegiteak ditu.</p> <p>Gai da audio mezu simple batzuk ulertzeko.</p>	<p>Maila honetako ikasleak zuzen erantzuten ditu informazioa bilatzearekin zerikusia duten galderak (informazio hori literala izan edo ez) eta, gainera, edukiaren banaketa ulertzen du, eta badaki non aurkitu informazio berriazko bat testu eten batean. Testua bere osotasunean ulertzen du eta hitzez haratago interpretatzeko gai da.</p> <p>Aurreko mailetan baino hiztegi zabalagoa ulertzen du eta horrek aukera ematen dio egoerak eta ekintzak ulertzeko ingurua zabaltzeko.</p> <p>Gai da pertsonaia baten edo fotograma baten oinarrizko ezaugarriak deskribatzeko, testua ulertzea eragozten ez duen akatsen bat egiten badu ere.</p> <p>Gai da zikloari dagozkion audio mezuak ulertzeko.</p>	<p>Maila honetako ikasleak zuzen erantzuten ditu informazioa bilatzearekin zerikusia duten galderak (informazio hori literala izan edo ez) eta, gainera, edukiaren banaketa ulertzen du, eta badaki non aurkitu informazio berriazko bat testu eten batean.</p> <p>Konplexuagoak diren horiek ere ebazten ditu, interpretazio-maila handiagoa eskatzen dutenak, edo hiztegi edo egitura sintaktiko konplexuagoko testuetakoak.</p> <p>Gai da pertsonaia baten edo fotograma baten oinarrizko ezaugarriak deskribatzeko zikloaren mailari dagokion testu koherente eta zuzen baten bitartez.</p> <p>Arazorik gabe ulertzen ditu zikloaren mailari dagozkion audio mezuak.</p> <p>Laburbilduz, gaitasun handia erakusten du ebaluaturiko hiru trebetasunetan.</p>